

EOI BILBAO HEO
BIZIKIDETZA PLANA
PLAN DE CONVIVENCIA

AURKIBIDEA

	or.
1. Sarrera	2
2. Ikastegiaren eta haren inguruaren ezaugarriak	3
2.1. Ikasleen ezaugarriak	4
2.2. Irakasleen ezaugarriak	5
2.3. Irakasle ez direnen ezaugarriak	6
3. Ikastegiko bizikidetzaren egoera	6
4. Bizikidetza Plana: Helburuak	7
5. Bizikidetza-arauak	7-8
6. Bizikidetza-batzordea	9
7. Bizikidetza-arauen aurkako portaerak aurreikusteko eta hobetzeko jarduerak	10
8. Portaera desegokiak eta gertaeren bilketa eta kudeaketa egiteko prozedura	11-12
9. Bizikidetza Planaren hedapena, segimendua eta ebaluazioa	12
10. Gertaeren jakinarazpena	13

1. Sarrera

Gaur egungo gizartearen konplexutasunak eta bertan gertatzen diren aldaketa etengabe eta azkarrek agerian utzi dute hezkuntza-helburuei bestelako ikuspegia eman behar zaiela. Beharrezkoa iruditzen zaigu gure ikastegian gatazkak eraginkortasunez tratatzea eta bizikidetza hobetzea ahalbidetuko duen proposamen bat txertatzea, eskola-erkidegoaren harremanak hondatzea saihesteko. Beraz, ikastegiaren barruan bizikidetza arautzen duten eta interesen gatazka eragiten duten egoeretan indarrean egongo direla bermatuko duten printzipioak zehaztu behar dira.

EOI Bilbo HEOko Bizikidetza Planaren lanketa balio demokratikoetan oinarritzen den bizikidetza positiboa sustatzen duten honako plan hauen baitan kokatzen da:

- 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntza Kalitatea hobetzekoa (LOMCE), hezkuntza-sistemaren printzipio gisa askatasun pertsonala, erantzukizuna, herritargo demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna, errespetua eta justizia ahalbidetzen duten balioen transmisioa eta praktika ezartzen dituena. Gatazken prebentziorako eta gatazken ebazpen baketsua lortzeko hezkuntza sustatzeko ahalegina egingo da. Era berean, norberaren bizimoduan, familiaren eta gizartearen baitan indarkeriarik eza, eskubide eta aukera berdintasuna eta gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatuko dira.
- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa, hezkuntzarako eskubidearen jarduna ahalbidetzeko elementu gisa balio demokratikoetan oinarritutako bizikidetza sustatzea hartzen duena.
- Euskadiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako legea, "gatazkak ebazteko indarkeriarik gabeko metodoak, eta sexuen berdintasunarekiko eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako bizikidetza-ereduak ikastea" azpimarratzen duena.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastegietako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoak azpimarratzen du "ikasle guztiek dute eskubidea haien osotasun fisiko, psikiko eta morala eta haien duintasun pertsonala errespetatu dadin".

2. Ikastegiaren eta haren inguruaren ezaugarriak

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala Deustun dago. Hiri barruko kokapena da, eta ikastegiaren inguruko unibertsitate-giroa dela eta, ikasle asko izaten dira inguru horretan. Kokapen horri esker, Eskolara hainbat garraio publikotan irits daiteke: metroa edo hainbat autobus-linea, esaterako.

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala ikastegi publikoa da, eta helduei hizkuntzak irakastea du xede. Gaur egun, zortzi hizkuntza irakasten dira gure ikastegian: alemana, gaztelania, euskara, frantsesa, ingelesa, italiara, portugesa eta errusiera.

Eskolako irakasleek beti egin dute ahalegina hizkuntzen irakaskuntzako metodologia-joeretan egunean egoteko, eta EEMKera egokitzeko prestatu dira ikastaroetara joanez, metodologia aldaketak eginez eta teknologia berriak erabiltzen ikasiz.

1991n Autoikaskuntza Gela sortu zen, gaur egun Multimedia Gela deitua.

Gure ikastegiak 1969-1970 ikasturtean ekin zion bere jardunari, 1.213 ikaslerekin. Gaur egun ia 7.000 ikasle ofizial eta 4.000 ikasle libre matrikulatzen dira urtero Bilboko HEOn.

Bilboko Eskolan 18 gela daude goizez, eta arratsaldez beste 33. Alde horren arrazoia da eskolako 5. eta 6. Solairuak Errekamari Elorrioeta Lanbide Heziketako Zentroak hartzen dituela 8:00etatik 14:00etara eskolak emateko. Gure ikastegiaren ordutegia, hala ere, 8:00etatik 21:00etara da, eta tarte horretan ematen dira aipatutako hizkuntzetako eskolak. Arratsaldeko azkeneko ordua izaten da ikasleek gehien eskatzen dutena, eta ordu horretan maila bakoitzeko gutxienez talde bat eskaintzen ahalegintzen gara, hizkuntza guztietan, gaztelania atzerriko hizkuntza gisa izan ezik, hori goizez soilik ematen dugu eta. Portugesa eta errusiera arratsaldez soilik ematen ditugu.

Gure Eskolan bi espazio zabal ditugu jarduera osagarriak eta eskolaz-kanpokoak egiteko. Ekitaldi Aretoak bereziki, azterketa garaian pertsona kopuru handia biltzea ahalbidetzen digu, bai deialdi ofizialean bai deialdi librean.

2.1. Ikasleen ezaugarriak

Gure Eskolako ikasleak askotarikoak dira adinari, jatorriari, lan-egoera eta okupazioari, diru-sarrerei, helburuei eta formazio-iguripenei eta bizi-interesei dagokienez.

Adinari dagokionez, gehienak 24 eta 45 urte bitartekoak dira. Gela berean, hainbat hamarkadatan jaiotako ikasleak daude elkarrekin.

Ikastegian sortzen den bizikidetza-giroa dela eta ikasleei dagokienez, hainbat faktore hartu behar dira kontuan ezinbestean:

- Ikastegiko ikasle gehienak helduak dira. Ia erdia 30 urtetik beherakoak dira eta 2/3 baino gehiago 40 urtetik beherakoak. Sexuari dagokionez, heren bat gizonak dira eta 2/3 emakumeak.
- Taldeak oso heterogeneoak dira (adina, motibazioa, lanbidea, prestakuntza akademikoa, etab.)
- Ikasleek denbora gutxi ematen dute ikastegian: oro har, klaseak irauten duen bitartean soilik egoten dira bertan, hau da, 2 ordu eta 15 minutu, astean bi egunez.
- Gure ikasketak ez dira derrigorrezkoak; beraz, oro har, matrikulaturik dauden ikasleen motibazioa handia da, baina batzuen bizi-baldintzen ondorioz, eskolak utzi egien dituzte sarritan; hala ere, horrek ikasleen banan-banako arreta handiagoa izatea eragiten du.

Honako Bizikidetza Plan hau egiteko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua hartu dugu oinarri; hor jasotzen direlako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastegietako ikasleen eskubideak eta betebeharrak. Bilboko HEOko irakasle guztiek babestuko dituzte aipatutako dekretuak ikasleei aintzatesten dizkien eskubideak, araudi honek eta aginte-organoen jarraibideek xedatzen dutenari jarraikiz.

Eskolako Antolakuntzaren eta Funtzionamenduaren Araudian (AFA) ikasleen eskoletarako asistentzia (Bizikidetza Arauak, II. Titulua, 36. art.) eta instalazioak erabiltzeko eskubidea (37. art.) arautzen dira.

Gure Araudiaren III. Kapituluaren ikasleen eskubideak betetzeko bermeak zehazten dira; eta portaera desagokiak (39. art.), bizikidetaren aurkako portaerak (40. art.), bizikidetza larriki kaltetzen duten portaerak (41. art.) eta portaera horiek zuzentzeko prozedurak (42. art.) aipatzen dira.

Portaera desagokiak Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 30. artikuluan zerrendatzen dira (AFA: XII. Eranskina),

bizikidetzaren aurkako portaerak Dekretu beraren 31. artikuluan, eta bizikidetza larriki kaltetzen duten portaerak 32. artikuluan.

Gure ikastegian bizikidetza egokia beramatzeko, ezinbestekoa da guztiok barneratzea etekin akademikoa objektiboki ebalua dakien ikasleek duten eskubidea bermatzeko sistema bat. (AFA: III. Kap., II. Izenburua, 43-46 art.)

2.2. Irakasleen ezaugarriak

Bilboko HEOk klaustro zabala du, zortzi sail didaktikotan banaturiko 70 irakaslek osatua. Aleman, frantses, ingeles eta italierako sailetan, gainera, elkarrizketa-laguntzaile bat edo bi ditugu.

Ikastegian sortzen den bizikidetza-giroa dela eta, ikasleei dagokienez, hainbat faktore hartu behar dira kontuan ezinbestean:

- Bilboko Eskolak oso plantilla egonkorra du, irakasleen % 80 baino gehiagok behin betiko plaza dute ikastegian.
- Bilboko Hizkuntza Eskolako Antolakuntza eta Funtzionamendurako Araudian (AFA) (III eta IV. Kap) jasoak daude Zuzendaritza Taldearen, Sail Didaktikoen eta sailetako buruen eta koordinazio pedagogikorako batzordearen izaera, osaera, funtzioak eta eskumenak. Era berean, jasota daude tutoretzak zein diren eta tutoreen funtzioak zein diren ere.

Eskolako Antolakuntza eta Funtzionamendurako Araudiak (AFA) ordutegiak eta taldeak hautatzeko irizpideen berri ere ematen du (VI. Kap. 30. art.).

Ikastegi honetako irakasleen araubidea Euskal Funtzio Publikoaren Legearen, Hezkuntza Sailaren xedapenen eta bertan hartutako lan-akordioen mende dago. Lizentziak eta baimenak honako xedapen hauen arabera eskatu eta emango dira. Eskolako Antolakuntza eta Funtzionamendurako Araudian (AFA, VI. Kap., 31. art.) jasota dago irakasleen ausentzien, lizentzien eta baimenen tramitazioari buruz Eskolak duen barne-araubideari dagokiona.

2.3. Irakasle ez direnen ezaugarriak

Zortzi administrarik eta bost atezainek, goiz eta arratsaldeko txandetan, osatzen dute irakasle ez direnen taldea. Plantilla hori behar bezala antolatzen da ikastegiaren ohiko nahiz unean uneko jardunean bizikidetzaren aurkako arazorik sor ez dadin.

3. Ikastegiko bizikidetzaren egoera

Gure eskola oso handia den arren, oso gatazka gutxi daude. Ezin dugu esan etengabeko enfrentamenduak daudenik, kexa edo uneko arazoren bat eragin ahal izan duten unean uneko egoerak baizik. Dena dela, lanerako eta bizikidetzarako giroa egokia da.

Gure instalazioetan ikasi nahi dutenen plaza eskaerak eskaintzak baino askoz gehiago dira; eskaintza erabilgarri dauden gela eta irakasle kopuruaren arabera baita.

Gaur egungo egoeraren eraginez, hau da ordutegi zatiketa eta gainezarketagatik, ikasle askok ordutegi aldaketa eskatzen dute eskolak hasi eta gutxira. Sarritan, aldaketa horiek ezin izaten ditugu egin xede diren taldeak beteta daudelako. Eta egoera horiek ikasleen kexak eragin ditzakete.

Beste ikasle talde bati hizkuntza eta maila bereko bi taldetan parte hartzeko aukera eskaintzen diogu, txandaka lan egiten dutelako. Aldaketa hori gehien eskatzen dutenek euskara eta ingelesa ikasten dute. Askotan Osakidetzan lan egiten duten pertsonak dira. Ikasle horiek bi taldetan parte har dezaten irakasleek duten prestutasunari esker lortzen da hein batean, ikastegian giro ona egotea; ikasleek eskertu eta balioetsi egiten dutelako denok egiten dugun ahalegina.

Ikasleren batek bere egoera modu desegokian erabiliko balu bere asistentzirik eza kontrolatzea eragozteko, bere taldeko tutoreak Ikasketa Buruari jakinaraziko dio, eta ikasle horri ez zaio berriro ere asistentzia-mota hori erabiltzen utziko hurrengo ikasturteetan.

Ikastegiaren bizikidetzan nabarmen eragiten duena sakelako telefonoen okerreko erabilera da, eskolen joan egokia eteten duelako eta ezagupenaren transmisioa eta arreta eragozten dituelako.

Eta irakasleak gero eta gehiago haserretzen dituen beste alderdi bat ikasleen puntualtasunik eza da. Berandu iristen direnen eta/edo klasea amaitu baino lehen irtetzen direnen etengabeko joan-etorriak klasearen sekuentzia-erritmoa apurtzen du.

4. Helburuak

- Ikastegiko bizikidetzaren egoerari buruzko gogoeta egitea.

- Bizikidetza positiboaren printzipioa gelako hezkuntza-plangintzan, ikastegiaren jardueretan eta haren antolakuntzan txertatzea.
- Bizikidetza hobetzeak irakasteko eta ikasteko zeregina errazten duela konturatzea.
- Ikastegiko jarduera guztien garapenari lagunduko dioten balio positiboak sustatzea, bai irakaskuntzaren eremuan bai administrazioaren eremuan.
- Hezkuntza-erkidegoko kideen arteko gatazkak saihestea eta/edo denontzat mesedegarria den moduan aztertzea.
- Bizikidetza eskolaz-kanpoko jardueren edo jarduera osagarrien bidez sustatzea, hezkuntza-erkidegoa inplikatzeko.
- Gatazkak konpontzeko bitartekaritza-estrategiak finkatzea.
- Ikastegiko bizikidetza arautzen duen jarduna behar bezala zabaltzea.
- Hezkuntza-erkidegoaren barruan aniztasunaren errespetua bultzatzea.

5. Bizikidetzarako oinarrizko arauak

Bizikidetza-arauak betetzea eskola-erkidegoko kide guztien erantzukina da, salbuespenik gabe. Beraz, honako arau hauek bete eta betearazi behar dituzte: zuzendaritza taldeak, irakasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek, ikasle guztiek eta Bilboko HEOren funtzioamendu-ordutegiaren barruan aldi baterako irakaskuntza edo administrazio-lana egiten duten guztiek.

Abiapuntu hartuta gure herrialdeko hezkuntza-sistemaren *printzipioa askatasun pertsonala, erantzukizuna, herritargo demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna, errespetua eta justizia ahalabidetzen duten balioen transmisioa eta praktika ezartzea dela*, honako hauek hartu ditugu bizikidetzarako oinarrizko arau gisa:

- Hezkuntza-erkidegoko kide guztien duintasuna, osotasuna eta intimitatea eta haien pentsamendu-askatasuna, uste moralak eta erlijiosoak errespetatzea.
- Hezkuntza-erkidegoko kideetako inor ez diskriminatzea jaiotze, kultura, etnia, sexua edo beste edozein inguruabar pertsoal edo sozialengatik.
- Elkartasuna bultzatzea eta edozein indarkeria mota arbuiatzea. Bereziki zainduko da adin txikiko ikasleen babesa.

- Ikasleen nahiz irakasleen puntualtasuna, klaseak hasteko nahiz amaitzeko orduan.
- Irakasleekiko begirunea; halako eraz non, ikasle batek edo ikasle talde batek kexaren bat aurkeztu nahi duenean, inplikaturik dagoen irakaslearekiko begirunez eta elkarrizketarako jarrerarekin egin dezan. Ikasleak edo ikasle taldeak irakaslearen jarrerarekiko desadostasunean jarraitzen badu, Sailaren Buruari edo, zuzenean, Ikasketa Buruari jakinaraziko dio.
- Irakaslearen eskumenekoak diren ikasketa-gaiei buruz irakasleak berak hartzen dituen erabakiekiko errespetua, klaseko metodologia barne, zeina beti egongo den programazioari atxikita.
- Elkarrizketa-laguntzaileekiko edo irakasleari bere zereginen lagun diezaiokeen beste edozein pertsonarekiko errespetua.
- Ikastegian berria den irakaslearen harrera eta orientazioa, bai ikasturte hasieran sartzen direnena bai ikasturtean zehar beste batzuek ordezkatzera datozen aldi baterako irakasleena.
- Irakasle ez diren –administrari, atezain, garbiketako langile– langileekiko errespetua, zeinak ikastegiaren eguneroko nahiz unean uneko zereginen arduratzen diren.
- Ikastegiko gainerako ikaskideekiko errespetua, eta korridoretan eta ikasgelen ondoko gune komunetan ez hitz egitea, eta gela barruan jarlekuak arrastaka ez erabiltzea.
- Ikastegiko ondasun higigarriak eta instalazioak behar bezala erabiltzea, eta hezkuntza-erkidegoko gainerako kideen jabetzapeko gauzak errespetatzea.
- Multimedia Gelan errespetuz portatzea, bai gelaren arduradunekiko bai bertan ikasleen eskura dagoen materialarekiko.
- Liburutegitik ateratzen diren liburuak edo zenbait sailetan maileguan uzten diren materialak itzultzeko zehaztutako epea errespetatzea.
- Ikastegiko bizimoduan eta funtzionamenduan parte hartzea eta gela barruan nahiz ikastegiko beste dependentzietan giro atsegina lortzeko laguntza aktiboa, bizimodu akademikoaren bilakaera egokia kalte dezaketen jarrerak saihestuz.

- Ahal den heinean, jarduera osagarrietara eta eskolaz-kanpokoetara joatea eta parte hartzea, horiek ikastegiaren jarduera orokorren parte direlako.
- Sakelako telefonoak itzalita edo isilarazita edukitzea, larrialdiren bat denean izan ezik, eta irakasleari jakinarazita.
- Ikasgelan jateko eta edateko debekua errespetatzea, halaber eremuaren barruan erretzeko debekua, zigarro elektronikoak erabiltzeko debekua eta edari alkoholikoak kontsumitzeko debekua errespetatzea.

6. Bizikidetza-batzordea

Bizikidetza-batzordea da ikastegiaren barruko bizikidetza zainduko duen zuzendarita-organoa eta organo betearazlea. Zuzendaria, Ikasketa Burua, klaustroko bi irakasle eta Eskola Kontseiluko ordezkarien artean hautatutako bi ikasle izango ditu kide. Batzordek gutxienez ikasturtean behin egingo du bilera gertaerak aztertzeko eta, beharrezkoa balitz, neurriak aplikatzeko; edo lortu nahi diren portaera positiboetarako neurri berriak proposatzeko, eta arazo larriren bat ebatzi behar den guztietan ere bai.

7. Bizikidetza-arauen aurkako portaerak aurreikusteko eta hobetzeko jarduerak

Eskolak ez ditu neurriak hartu behar bizikidetza-arauren bat hausten denean soilik; aitzitik, arau horiek nahasten dituzten portaeren prebentzioa egin behar du bereziki, ahal den heinean, halako portaerak gertatzea eta ikastegi barruko oreka haustea saihesteko.

Irakasleen zein irakasle ez direnen erantzukizuna da prebentzio-neurri horiek aplikatzea, eskolara datozen pertsonen bizikidetza eta harremanak errazteko.

Zuzendaritza Taldea: Zuzendaritza Taldearen ardura da Bizikidetza Planaren berri ikastegiko hezkuntza-estamentu guztiei ematea. Haien erantzukizuna izango da ikastegira datozen pertsona guztiek Bizikidetza Planean jasotzen dena betetzea. Zuzendaritza Taldea beti egongo da harekin komunikatzeko premia duten sektore guztien esanetara.

Sailak: Sail Didaktikoek bizikidetza hobetzeko proposamenak egingo dituzte, eta gatazka-egoerak hautematen dituztenean haien berri emango dute. Sail bakoitzaren baitan bizikidetza-arauak betetzen direla zainduko dute.

Irakasleak: Ikasleei Bizikidetza Planaren berri eman behar diete, ikasleek ikastegiaren barruko oinarrizko arauak zein diren jakin dezaten. Ikasgelan bertan ikuskatu, ebaluatu eta ebatziko dituzte gela horretako kideen bizikidetza kolokan jartzen duten gertaerak. Irakasleek hauteman eta jaso behar dituzte litezkeen bizikidetza arau-haustek, eta Ikasketa Buruari eta/edo Bizikidetza Batzordeari jakinaraziko diote.

Irakaslea inplikatu egingo da Bizikidetza Planean jasotzen diren jarduerak eta prozedurak aurrera eramateko, eta berehala jakinaraziko dio Zuzendaritzari ezarritako arauak hausten badira.

Irakasleek ikasleen klaseko asistentzia kontrolatuko dute. Adin txikikoen kasuan, ikasturte hasieran jakinaraziko zaizkie gurasoei edo tutoreei asistentzia-arauak, eta ikasleek huts egiten dutenetan horren berri emango diete.

Irakasle ez diren langileak: Langile horiek Zuzendaritza Taldeari emango diote bizikidetza-arauen kontrako edozein portaeraren berri.

8. Portaera desagokiak eta gertaeren bilketa eta kudeaketa egiteko prozedura

Gertaerak ikastegiko ikasleei dagozkienean, “Gertaeren jakinarazpena” (ikusieranskina) izeneko dokumentua beteta jakinaraziko dute. Jakinarazpen horrekin batera, garrantzitsu edo egokitzat jotzen diren taldearen tutoreak emandako dokumentazioa edo argibideak jasoko dira; bai eta gertaeran presente egon den irakaslearenak, gertaera gelatik kanpo jazo bada. Aurrean irakaslerik egon ez bada, zaintzan dagoen Zuzendaritza Taldeko kideari bideratuko zaio.

Jakinarazpena betetakoan, Ikasketa Buruari helaraziko zaio. Ikasketa Buruak aztertu egingo du, eta zer neurri hartu behar den esango dio tutoreari. Zalantzarik badago, edo hutsegite larriak direnean, Batzorde Iraunkorra deituko da, hark modu berezian aztertu eta ebatz dezan. Edozein kasutan, jakinarazpen guztiak helaraziko zaizkio batzorde horri. Diziiplina neurriak ezartzeko, derrigorrezkoa da aurretik ikasleari entzunaldia egitea. Zuzenketa-neurriak eskoletara joateko debekua edo etena badakar, adin txikiko ikasleen kasuan, haiei ez ezik, gurasoei edo tutoreei ere

entzunaldia egin behar zaie. Ezarritako zuzenketak idatziz jaso behar dira, eta arauen aurkako ekintzen izaerarekiko proportzionalak izango dira, eta ikasleen hezkuntza-prozesua hobetzen lagundu behar dute. Ezin izango dira ikasleen osotoasun fisikoaren edo duintasunaren aurkako zigorrak ezarri. Ikasleek, nahita edo arduragabekeriagatik, ikastegiko instalazioetan edo materialean eta eskola-erkidegoko beste kide batzuen gauzetan eragindako kalteak konpondu behar dituzte, edo haiek konpontzeak eragin dezakeen gastua ordaindu behar dute.

Ikasleek edo haien legezko ordezkariak bi eskolaeguneko epea izango dute ezarritako zuzenketen aurkako erreklamazioa aurkezteko. Erreklamazio hori aintzat hartzen bada, zuzenketa-neurria ez da agertuko ikaslearen espedientean.

Bizikidetza Batzordeak bizikidetza larriki kaltetzen duten portaeren kasuan hartutako neurriak berrikusi ahal izango dira, inplikaturiko ikasleek edo haien guraso edo tutoreek eskatuta. Horretarako, Batzordeak aparteko bilkura deituko du eskaera aurkeztu eta, gehienez, bi eguneko epean.

Hartutako neurri guztiek kontuan hartuko dituzte inplikaturik dagoen ikaslearen inguruabar pertsonalak, familiarenak eta sozialak.

Gertaera ikastegiko langileren bati dagokionean, Idazkaritzari jakinaraziko zaio irakasle ez diren langileen kasuan, edo Ikasketa Buruari, irakasleak direnean. Horiek Zuzendaritza Taldeko gainerakoei emango diete egoeraren berri, eta hark erabakiko du arazoa konpontzeko zer bide hautatu.

Gertaera jendeari dagokionean oro har, esaterako, administrazio-kudeaketak direla eta edo ikastegiko irakaskuntzaz kanpoko beste edozein jardueragatik, gertaeraren berri jasoko da jakinarazpen berean eta Idazkaritzari emango zaio, eta larritasunaren arabera, Zuzendaritza Taldeak edo ikastegitik kanpoko aholkulariek ebatziko dute.

9. Bizikidetza Planaren hedapena, segimendua eta ebaluazioa

Honako Bizikidetza Plan honen berri emateko ardura Zuzendaritza Taldeari dagokio. Zuzendaritza Taldeak Planaren edukia Eskola Kontseiluko eta Klaustroko kideei helaraziko die, bai eta ikasleei ere, webgunearen bidez.

Ikastegian hezkuntza-erkidego guztiaren eskura paperezko kopia bat egoteaz gain, Eskolako webgunean ere txertatzea aurreikusi da.

Honako Plan hau Ikastegiaren Urteko Planaren helburuak berrikustean ebaluatu egingo da, eta organo garrantzitsuek hobetzeko proposamenak egingo dituzte: Sailek, Klaustroak eta Eskola Kontseiluak.

